

## ARARAT MENDITIK, GERRARI EZ

*Karlos del Olmo*

### ARARAT MENDIAREN SUMINA

**Yasar Kemal**

**Itzultzaile: Fernando Rey**

**Literatura Unibertsala**

**Alberdania & Elkar**

**144 orrialde**

**10,90 euro**

Urtero udaberria berriz loratzen denean, Ararateko bazter guztietako artzainak ailegatu eta borobil bat eginda esertzen dira milaka maitasun urteko lurraren gainean. Argia hastean, txirulak gerrikitik atera eta Ararat mendiaren sumina eta maitasuna jotzen dituzte. Aurten izan ezik. Aurten, udaberriarekin batera gerra heldu delako inguru horietara. Aurten txorien txioak gerra makinaren hots izugarriek isilarazi dituzte. Eta bazter horietako jendeak armak hartu behar izan ditu, edo deserrira jo, edo ahal izan duen moduan babestu.

Letra izentzat Yasar Kemal darabilen Kemal Sadik Gökceli idazlearen ahots minez kiskaliaren oihartzuna aditzeko inoiz baino zio sendoagorik nekez. Turkian, Kurdistanen eta Iraken bizi diren herritar xeheen ametsen berri dakarkigulako. Baita hango zapalduen aldeko aldarri ozena ere. Hark ere lanbide xume asko maiztuak dituelako.

Ahozko literaturaren tradizioetatik oso hurbil den estilo berezia darabil Kemalek. Eta Fernando Reyk trebe euskaraturiko liburu honetan argiro erakusten du. Herriaren itxaroak eta nekeak bat eginik. Bizi-bizirik, giza aberearen oinarrizko ezaugarri unibertsalak: maitasuna, ohorea, heriotza, gozamena...

Inoiz baino beharrezkoago dugu behartsuen alde egitea erabaki duen idazle honen letra ausartak leitzea, gerra haizeak hango basamortuetako hautsak harrotzen baititu halabeharrez hiltzera kondnaturikoen gorpuak estaltzeko. Esan batzuk ez dira erosoak boterearentzat. Yasarrek ederto daki horren berri. Noiz turkiarren, noiz kurduen alde mintzatzearren zigorrak eta atxiloketak jasan izan ditu. Mendebaldeko gobernuen jokabide hipokrita salatzeako orduan ere ez da beldur izan. Herri kurduaren aurkako genozidioan laguntzaile izatea aurpegiratu die ez bat eta ez bi.

Arrazismoaren eldarnioa, intolerantziaren izurria, gerraren edo gatazkaren ondorioak dautza haren letrazko eta ahozko adierazpenetan. Behin baino gehiagotan esan duenez, espetxera bidal dezakete, baina bera isilarazterik lortzeke. Euskaraz datorkigu plazara eta gure hizkuntza haren lanak eman dituzten hogeita hamar hizkuntza pasatxoren multzora bildu da harro. Oinarri-oinarrian, hemen ere elkartzen direlako artzainak mendi magaletan minak eta maitasunak txirulaz jotzera, udaberria itxaropentsu agurtzera. Txoriekin batera, gerra hegazkinak gainetik igarotzen zaizkigun arren.

Nobel Saria eman behar duten bakoitzean, Yasar Kemalen izena aitatzen dute. Aldean laurogei urte daramatzen arren, horietako asko European emanak, ia desagertzeko zorian den espezie bateko animalia dugu. Oso literatura gaztea baina konprometitua egiten dakielako azken berrogei urteetako narratzaile handienetakoa dugun horrek.

Kezka nagusi du gizakiaren duintasuna. Erretolika barik. Mendebaldeko narratzaile garbiaren trebezia baina aspaldiko sortaldeko kontalarien magiaz. Fernando Reyri

esker, prosa konplexu, aberats eta zapoetsua heltzen zaigu. Hona hemen: abulia garaietan, konpromisoari eutsia; minimalismoaren sasoian, epikoa; itxurakeriazko munduan, tinko eta onestua. Giza zapalkuntzaren kontra. Ararat menditik, gerrari ezetz ozen esanda.